

MARTXOAK 8rako PROPOSAMENA

Feminismo antiarrazistak genero zapalkuntza eta arrazakeria gurutzatzen diren puntuak aztertzen ditu, gizarte bidezkoago eta inklusiboago bat eraikitzeko oinarriak ezartzen. Hezkuntza esparruan zapalkuntzen arteko gurutzaketak lantzeak (interseksionalitatea) gazteak pentsamendu kritikorako, enpatiaren garapenerako eta justizia sozialaren aldeko jarrerak garatzeko aukerak ematen ditu.



Feminismo antiarrazistak emakume zuriak lehenesten dituzten feminismo tradizionalen mugak gainditzen ditu, eta zapalkuntzak esperimendatzeko modu anitzak kontuan hartzen ditu. Hezkuntzan, aniztasun kultural eta soziala aitortu eta baloratzeak ikasle guztien identitatea eta esperientziak legitimatzen ditu; baita arrazakeria eta xenofobia bezalako arazo sozialen aurka egiteko prestakuntza eskaini ere.

Afrikako feminismoak eta emakumeen mugimenduak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lantzeak gazteen ikuspegi globala zabaltzeko eta genero-berdintasunerako konpromisoan sakontzeko aukerak ematen ditu. Kontinentearen errealitate soziopolitiko eta kultural anitzak ulertzeko, gizartearen aldaketan emakumeek izandako ekarpenak aitortzeko eta Mendebaldeko ikuspuntuez harago doan ikuspegi globala garatzeko, besteak beste, aukerak ematen ditu.

Gure elkartetik martxoak 8rako proposamen bat luzatzen dizuegu. "Medicos del Mundo" elkarteak sortutako material bat jartzen dugu zuen eskura <https://conociendoafrica.semillaseducativas.org/eu/> Web gune honetan dagoen 7. atalari lotutako ekintza proposamena luzatuko dizuegu hain zuzen. Emaillean atxikituta 7. atala.

Afrikako feminismoak eta emakumeen mugimenduak

Helburua:

- Ikasleek Afrikako emakumeen historia, feminismoaren berezitasunak eta autoantolakuntza estrategiak ezagutzea.
- Gizartearen garapenean emakumeen ekarpena baloratzea eta berdintasunaren aldeko konpromisoa sustatzea.

Ariketa: "Emakume liderrak ezagutzuz eta hausnartzuz"

1. Sarrera jarduera (10 min):

- Ikasleak taldeetan banatu eta galdetu:
 - Zer dakizue Afrikako emakumeen inguruko lidergoaz edo borrokez?
 - Feminismoa zertan izan daiteke desberdina Afrikan eta mendebaldean?
- Talde bakoitzak bere ideiak aurkeztuko ditu.

2. Dokumentazio lanak (20 min):

- Materialean ageri diren emakumeetako bat aukeratu:
 - **Taytu Betul**
 - **Njinga Mbandi**
 - **Yaa Asantewaa**
 - **Funmilayo Ransome-Kuti**
 - **Leymah Gbowee**
- Talde bakoitzak emakume horri buruzko txosten labur bat idatziko du, honako galdera hauei erantzunez:
 - Zein testuingurutan borrokatu zen?
 - Zer ekarpen egin zituen bere komunitateari edo lurraldeari?
 - Zergatik da bere lidergoa gaur egungoentzat inspiratzailea?

3. Aurkezpenak eta eztabaida (20 min):

- Taldeek aukeratutako emakumeen inguruko aurkezpena egingo dute.
- Ondoren, talde osoak eztabaidatuko du:

- Zer ikas dezakegu haien esperientzietatik gaur egungo gizartean aplikatzeko?
- Nolako loturak ikus daitezke Afrikako feminismoaren eta gure inguruko feminismoaren artean?

4. Hausnarketa indibiduala (10 min):

- Ikasle bakoitzak idatziko du zer aurkikuntza edo inspirazio hartu duen jardueratik. Gainera, galderari erantzungo die:
 - Nola txertatuko zenuke feminismoaren ikuspegia zure eguneroko bizitzan?
 - Zer urrats egin daitezke mundu justuago bat lortzeko?